

**ARTEAREN
OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS**

Proba-idatzi honek 3 galdera ditu eta 90 minututan, gehienez, gauzatu behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bat bakarrik aukeratu behar duzu garatzeko. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkintzeko.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

En las dos primeras preguntas, se proponen dos opciones de las que sólo debes desarrollar una. En la última, hay un único texto para comentar.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.


ARTEAREN
OINARRIAK

FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS

1. GO GALDERA (Proba-idatziaren %40 balio du): bi irudi proposatzen dira. Bat aukeratu ezazu eta egin irudiaren iruzkina. Analisisrako proposatzen den gidoia eredu bezala erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisisa: lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa aztertu (bolumena, oinplanoa, azalera, konposizioa, etab.).
2. Egileak baliabide plastiko hauek, lanaren sorkuntza globalean, nola erabili dituen interpretatu.
3. Artelanaren gaia identifikatzen saiatu eta baita ere bere esanahian sakontzen.
4. Obraren funtzioak aipatu eta arrazoitu itzazu.
5. Erlazionatu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin eta argudiatu ze estiloko ezaugarri ikusten diren bertan landuak eta zein kronologian gauzatu izan daitekeen.



MICHELANGELO: *Vatikanoko Pietà*,
1498-1499



SMITHSON: *Spiral Jetty*, 1970

ARTEAREN
OINARRIAK

FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS

2. GALDERA (Proba-idatziaren %40 balio du): aukeratu galdera aukeretako bat.

A aukera

Proposatutako bi irudi hauetan erreparatu eta konparatu itzazu okurritzen zaizkizun edozein ikuspuntutik (aztertu antzekotasunak eta ezberdintasunak): gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioa, testuingurua, sorkuntza enfokea, espresio modua...



BANSKY: *I remember when all this was trees*, 2010, Detroit


KOLLWITZ: *Bread*, 1924, grabatua

B aukera

Azaldu klasikotasunaren kontzeptua eta aztertu bere bilakaera Antzinate greko-erromatarretik neoklasizismora. Gaia gidatzeko bi irudi proposatzen dira. Nahi izanez gero, erabili itzazu garapenerako.



IKTINOS eta KALLIKRATES: Partenoia, K.a. V. mendea (ezk.)



MASACCIO: *Txanponaren tributoa*, 1424-1428.

Brancacci kaperako freskoetako bat (Santa Maria del Carmine, Florentzia)

3. GALDERA (Proba-idatziaren %20 balio du): Jarraian testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu bere ideiarik inportanteenak eta arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin erlazionatu argudiatuz zure ondorioztapena. Aipatzen diren ideiekiko zure iritzi pertsonala azaltzea ere elementu gehigarri bezala baloratuko da.

Ezer gutxi daukat zuri esateko; ez bairik gabe, gauza gehiago eta agian hobeak esaten ditu batek pinturari buruz margolan bati ekiten dionean espekulazio hutsa diren teoriak eztabaidatzean baino, haietan galdu egiten baita hainbestetan

Paul CÉZANNE. Charles Camoin-i gutuna, 1903

**ARTEAREN
OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS**

Proba-idatzi honek 3 galdera ditu eta 90 minututan, gehienez, gauzatu behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bat bakarrik aukeratu behar duzu garatzeko. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkintzeko.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

En las dos primeras preguntas, se proponen dos opciones de las que sólo debes desarrollar una. En la última, hay un único texto para comentar.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.


ARTEAREN
OINARRIAK

FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS

1ª PREGUNTA (vale el 40% de la prueba-escrita): se proponen dos imágenes. Elige una y coméntala. Es necesario seguir el guión que se propone como modelo.

Guión:

1. Análisis formal: analiza el lenguaje plástico que se emplea en la obra (puntos de vista, calidades de la superficie, composición, planta, etc.).
2. Interpreta cómo el/la autor/a ha utilizado esos recursos plásticos en la creación global de la obra.
3. Identifica el tema de la obra y trata de profundizar en su significado.
4. Menciona cuáles son las funciones de la obra y arguméntalo.
5. Pon en relación la obra de arte con el estilo o movimiento en el que se ubica historiográficamente, explica las características del movimiento que en ella ves representadas y trata de especificar en qué cronología crees que fue realizada.



MICHELANGELO: *Pietà del Vaticano*,
1498-1499



SMITHSON: *Spiral Jetty*, 1970

ARTEAREN
OINARRIAK

FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS

2ª PREGUNTA (vale el 40% de la prueba-escrita): escoge entre las dos opciones de pregunta.

Opción A

Se propone una comparación de obras. Contéplalas y compáralas desde múltiples puntos de vista: el tema/género/simbolismo, la composición, sus funciones, el contexto, sus enfoques creativos, sus modos de expresión...



KOLLWITZ: *Bread*, 1924, grabatua



BANSKY: *I remember when all this was trees*, 2010, Detroit

Opción B

Explica el concepto de clasicismo y su evolución desde la Antigüedad greco-romana hasta el neoclasicismo. Se proponen como guía dos imágenes. Si lo deseas, empléalas para el desarrollo.



IKTINOS y KALLIKRATES: El Partenón, siglo V a.C. (izq.)



MASACCIO: *El tributo de la moneda*, 1424-1428.

Uno de los frescos de la Capilla Brancacci (Santa Maria del Carmine, Florencia)

**ARTEAREN
OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS
ARTÍSTICOS**

3ª PREGUNTA (vale el 20% de la prueba-escrita): a continuación, se propone un fragmento de texto. Léelo, resume sus ideas más importantes y relaciona el texto con un estilo o movimiento artístico argumentando por qué. Se valorará como un elemento adicional que expresas coherentemente tu opinión personal sobre las ideas que el/la artista propone.

Tengo poco que decirle; sin duda uno dice más y quizás mejores cosas sobre la pintura al enfrentarse con el cuadro que al discutir teorías puramente especulativas, en las cuales tantas veces se pierde.

Paul CÉZANNE. Carta a Charles Camoin, 1903

ARTEAREN OINARRIAK - FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

Zenbait gogoeta – Algunas reflexiones

- *Artearen Oinarriak* Artearen Teoria eta Historiako irakasgai bat da, baina sortzaileei zuzendua. Nahiz eta Humanitateen eta Gizarte Zientzien Batxilergoko *Artearen Historia* irakasgaiarekin edo Batxilergo Orokorreko *Kultura eta arte mugimenduak* irakasgaiarekin zenbait eduki partekatu, *Artearen Oinarriak* ikasten duten ikasleen profila ezberdina da eta baita ere irakasleek eta ikasleek berek irakasgaiari ematen dioten ikuspegia.

Fundamentos Artísticos es una asignatura de Teoría e Historia del Arte, pero destinada a creativos. Aunque comparte ciertos contenidos con la *Historia del Arte* del Bachillerato de Humanidades y Ciencias Sociales o *Movimientos culturales y artísticos* del Bachillerato General, el perfil de los alumnos que cursan *Fundamentos de Arte* es diferente y también el enfoque que el profesorado y el alumnado le dan a la asignatura.

- *Artelanen iruzkinean irudiak identifikatuak agertuko dira* (autorea, izenburua, data). Hortaz, ikasleei eskatzen zaie formaren analisi sakona egitea, obraren gaiaren inguruan gogoetak egitea, artelanaren funtzioak aztertzea eta arrazoitzea eta mugimendu edo arte-estilo bati esleitzea argudiatuz zergatia. Hortaz, artelanen iruzkin sakon eta argudiatu bat bilatzen da, bere testuinguru historiko-artistikoa aintzat hartzen duena.

En el comentario de imagen, las imágenes aparecerán identificadas (autor/a, título, fecha). Por tanto, al alumnado se le pide que profundice en el análisis formal, que haga una reflexión sobre el tema, que analice las funciones de la obra y lo argumente y que la adscriba a un movimiento o estilo artístico explicando por qué. Por tanto, se pide un análisis profundo y justificado de la obra que tenga en cuenta su contexto histórico-artístico.

- Gai teorikoan, proposatutako artelanen artean ahalik eta konexio eta ezberdintasun gehienak aipatzea eskatzen da. Irudien mugimendua edo estiloa identifikatzea inportantea da, baina baita ere artelanen atzean egon daitezkeen sorkuntza ikuspegiak erlazioan jartzea. Kontzeptu bat esplikatzeko eskatzen bada, kontzeptuak erlazioan jartzea edo beraien bilakaera azaltzea, edukien adierazpen zorrotza eta gogoetaren heldutasuna baloratuko dira.

En el tema teórico, ahora, es importante establecer el máximo de comparaciones y diferencias posibles entre las dos obras propuestas. Identificar el movimiento o estilo al que pertenecen las obras es también fundamental, así como poner en relación las concepciones artísticas que hay detrás de las obras propuestas. En caso de que se proponga la explicación de un concepto, de poner en relación varios o de explicar su evolución, se valorará que el alumnado explique con precisión los contenidos y la madurez en el razonamiento.

- Testuaren ariketak duen helburua da ikasleek sortzaile baten idazki bat ulertu eta bere testuinguruan kokatzeko gai izatea. Hemendik aurrera, aurkeztutako ideiekiko daukaten iritzia koherenteki argudiatzea ere baloratuko da elementu gehigarri bezala.

El objetivo del ejercicio sobre el texto es que el alumnado sea capaz de entender y situar en su contexto propio el escrito de un artista. A partir de ahora, se valorará como un elemento adicional que el alumnado manifieste de manera coherente su opinión respecto a las ideas del texto.

Ebaluazio-irizpide orokorrak - Criterios de evaluación generales

1. Eskatzen zaionari egokitu egiten da eta gaian zentratzen da.

- Se ajusta al enunciado y se centra en el tema.
2. Ortografikoki eta gramatikalki zuzena da.
Se expresa con corrección ortográfica y gramatical.
3. Zuzentasunez eta argitasunez espresatzen da, eta testu koherente eta egituratu bat egiteko gai da.
Se expresa con corrección y claridad, y es capaz de construir un texto coherente y estructurado.
4. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
Argumenta sus afirmaciones.
5. Gaiaren hiztegi espezifikoa erabiltzen du.
Utiliza el vocabulario específico de la materia.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak - Criterios de evaluación específicos

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

Comentario de una obra de arte: 4 puntos

- Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren forma-errekurtsoak identifikatu eta aztertzen ditu, eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.
Identifica y analiza coherentemente los recursos formales de la obra y cómo el artista los emplea.
- Artelanaren gaia aipatu eta azaltzen du. Artelanaren forma-errekurtsoak eta bere esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.
Menciona y explica el tema de la obra. Establece relaciones entre los recursos plásticos presentes en la obra y el significado de la misma.
- Artelanaren funtzioak identifikatzeko eta justifikatzeko gai da.
Identifica las funciones de la obra y es capaz de justificarlas.
- Artelana eta historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren

ezaugarriak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza garai eta espazioan kokatzen du...

Establece conexiones entre la obra de arte y el estilo o movimiento en el que se ubica historiográficamente: menciona las principales características del movimiento que reconoce en la obra, sitúa la obra en su tiempo y espacio de creación...

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu

Desarrollo de un tema: 4 puntos.

- Irudiak sakonki konparatzen ditu hainbat ikuspuntuetatik: gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioak, testuingurua, sorkuntza enfokea, espresio modua...

Compara las imágenes propuestas desde múltiples puntos de vista: el tema/género/simbolismo, la composición, sus funciones, el contexto, sus enfoques creativos, sus modos de expresión...

- Proposatzen zaizkion irudien mugimendu edo estiloak identifikatzen ditu eta beraien ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen ditu.

Identifica y explica los rasgos fundamentales de los movimientos o estilos de las imágenes propuestas.

- Kontzeptu bat edo bi agertzekotan, definitu egiten ditu, bera bilakaera aztertzen du eta bere gorputzearen adibideak aipatzen ditu. Era berean, haien arteko justifikatutako erlazioak edo konexio gabeziak azaltzen ditu.

En caso de que se proponga uno o varios conceptos, los explica, analiza su evolución y menciona ejemplos de ellos. Así mismo, establece relaciones justificadas para vincularlos u oponerlos.

Testu-iruzkina: 2 puntu

Comentario de un texto: 2 puntos

- Testuaren gaia eta idei nagusiak identifikatzen ditu.

Identifica el tema y las ideas principales en el texto.

- **Testuko informazio garrantzitsuen laburbiltzeko gai da.**

Es capaz de resumir la información relevante del texto.

- **Testuaren ideiak berarekin erlazioa daukan estilo edo mugimenduarekin harremanetan jartzen ditu.**

Establece relaciones entre las ideas que aparecen en el texto y el estilo o movimiento artístico al que hace referencia.

- **Testuak aipatzen dituen ideiekiko iritzi propio bat koherenteki azaltzen du. Argudio nahikoak erabiltzen ditu bere usteak berresteko.**

Tiene una opinión propia sobre las ideas que propone el texto y utiliza argumentos suficientes para apoyar su opinión.